

Euskararen garapena arlo juridikoan: Euskal Zuzenbide Zibileko eta Zuzenbide Zibileko terminologiaren azterketa



Gradu Amaierako Lana

Zuzenbide Gradua

2016-2017 ikasturtea

Egilea: Nerea Lopez Leiton.

Zuzendaria: Xabier Alberdi Larizgoitia.

LABURPENA

Lan honetan, euskarak arlo juridikoan izan duen garapena aztertu dut. Zehazki, euskal terminologia juridikoak Zuzenbide Zibilearen arloan izan duen aldakortasuna aztertu dut. Baina, azterketa horren aurretik, terminologiaren sorrerari eta terminologiaren inguruko teoria desberdinei buruzko laburpen txiki bat egin dut. Ondoren, euskarazko terminologia juridikoaren eragileak nortzuk izan diren azaldu eta euskarazko termino juridiko egokia lortzeko gaitasun behar diren arazoak laburpena egin dut.

Ondoren, Euskal Zuzenbide Zibileko bi legeren terminologia aztertu dut, Euskal Zuzenbide Zibileko eta Zuzenbide Zibileko terminologia, hain zuzen. Izan ere, lege batek bestea ordeztu du. Beraz, lege batetik bestera igaro diren 23 urteetan termino juridikoetan zenbaterainoko aldakortasuna gertatu den ikusiko da lanean. Bi legeen gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak aztertu ditut. Aldakortasun handia dago euskarazko bi testuen artean; aldiz, gaztelaniazko bertsioetan terminoak ez dira aldatu.

RESUMEN

En este trabajo analizo el desarrollo que ha tenido el euskera en el ámbito jurídico. Concretamente, el del desarrollo de la terminología jurídica vasca en el ámbito del Derecho Civil. Pero, antes de ese análisis, hago un pequeño resumen sobre el origen de la terminología y sobre sus diferentes teorías. Después, explico quienes han sido los impulsores de la terminología jurídica y cuáles son las dificultades a afrontar para conseguir el termino jurídico vasco adecuado.

Después, he analizado la terminología de dos leyes de Derecho Civil Vasco. Concretamente terminología de Derecho civil vasco y de Derecho Civil. De hecho, una de las leyes reemplaza la otra. Por lo tanto, se verá si en los 23 años que las separan ha habido algún cambio en la terminología jurídica. He analizado las dos versiones en castellano y en euskera de las dos leyes. Hay una gran variación entre los términos de los dos textos en euskera, mientras que los términos de las versiones en castellano no han cambiado.

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
1. TERMINOLOGIAREN SORRERA.....	6
1. 1. Terminologiaren Teoria Klasikoa eta terminologiaren kudeaketarako metodologia oinarriak.....	6
2. TERMINOLOGIA-LANA EUSKAL HERRIAN: ARLO JURIDIKOA AZPIMARRATUZ.....	8
2. 1. Euskal Terminologia juridikoaren eragileak.....	10
2. 1. 2. Normalizazio prozesuan euskarazko termino juridiko egokiaren bila.....	14
2. 2. Euskal terminologia juridikoaren batasun falta.....	16
3. EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILARI BURUZKO LEGEEN AZTERKETA.....	19
3. 1. Metodologia.....	19
3. 2. Hustutako terminoen azterketa.....	21
3. 2. 1. Euskal Zuzenbide Zibileko terminoen azterketa.....	23
3. 2. 2. Zuzenbide Zibileko terminoen azterketa.....	29
3. 2. 3. Zuzenbide Orokorreko eta Zuzenbide adar desberdinetako terminoen azterketa.....	36
4. ONDORIOAK.....	36
5. BIBLIOGRAFIA.....	39

SARRERA

Adierazi bezala, euskal terminologia juridikoak Zuzenbide Zibilaren arloan izan duen aldakortasuna aztertu dut. Beraz, egindako azterketaren bitartez, terminologia juridikoaren (Zuzenbide Zibilaren) egungo egoera zein den jakingo dugu. Laburpenean azaldu dudana bezala, lehenengo, terminologiaren sorrerari eta euskal terminologia juridikoari buruzko laburpen txiki batzuk egin ditut. Euskal terminologia juridikoaren batasun falta aztertu ondoren, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko bi legeren terminologia aztertu dut: 3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru-zuzenbide Zibilari buruzkoa eta 5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari Buruzkoa, hain zuzen. Esan bezala, lege batek bestea ordeztzen du.

Terminologia juridikoak izan duen garapena hobeto ikusteko, egungo egoera iraganeko egoerarekin konparatu dut. Izan ere, lan honek artikulua hau du oinarri: Antton Elosegik (2004) *Eleria* aldizkarian idatzitako “Euskara juridikoak 25 urte betetzen dituenean. Gogoeta batzuk euskara juridikoaren garabidearen gainean”. Eta, nire azterketan lortutako emaitzak, artikulua horretan ateratako emaitzekin konparatzen ditut.

Azterketa horretarako, forulege webgunetik lortutako baliokidetasun taula bat (aztertu ditudan bi legeena) erabili dut. Taula horretan bi legeen artikuluen sailkapena egiten da, hau da: legearen edukia aldatu denez, kapituluak eta artikulak ere aldatu dira. Hori dela eta, 3/1992ko Legeko 125. artikulua (ezkontzaren araubide ekonomikoari buruzkoa), orain, 5/2015eko Legeko 93. artikuluan arautzen da, adibidez. Lortutako baliokidetasun taula gaztelaniaz dago, beraz, artikuluz artikulua termino berdinak erabiltzen ziren aztertu dut eta ondoren, euskarazko bertsioetan artikuluz artikulua termino horietarako zein baliokide erabiltzen diren. Beraz, bi lege aztertu beharrean, lau aztertu ditut: bi legeen gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak. Hori izan da egin dudana lehenengo hustuketa.

Baina, lehenengo hustuketa horretan lortutako termino batzuk juridikoak ote ziren zalantza nuen. Gainera, ez nekien lortutako terminoetatik zeintzuk ziren Euskal Zuzenbide Zibilekoak eta zeintzuk Zuzenbide Zibilekoak. Hori dela eta, terminoen beste hiru hustuketa egin ditut, hiru iragazki desberdin erabiliz. Lehenengo iragazkia, Andrés Urrutiak (2014) egindako “Diccionario Terminológico de Derecho civil foral vasco” hiztegi terminologikoa izan da. Bigarren iragazki gisa, Deustuk (2010) argitaratutako “Zuzenbide Zibileko Berbategia”, eta Euskaltermeko terminologia bankua erabili ditut. Eta, hirugarren iragazki gisa, Deustuk (2005) argitaratutako “Oinarrizko Hiztegi

Juridikoa” eta Euskaltermeko terminologia bankua erabili ditut. Beraz, hustuketa horien emaitza hiru taula izan dira: Euskal Zuzenbide Zibileko terminoen taula; Zuzenbide Zibileko terminoen taula eta Zuzenbide Orokorreko eta beste zuzenbide adarretako terminoen taula.

Hustutako termino horien sailkapena egiteko, UPV/EHUko Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) programan erabili den sailkapenaz baliatu naiz, nahiz eta azkeneko taula, terminologia zibilekoa ez denez, ez dudan aztertu.

Lanaren bukaeran lau eranskin jarri ditut. Lehenengo hiru eranskinak, azterketaren emaitzatik lortutako taulak dira. Azken eranskina (4.a), aldiz, hizkuntzalaritza eta terminologia hiztegi bat da. Izan ere, ez naiz hizkuntzalaria eta lana egin bitartean ezagutzen ez nituen edo nahasten nituen hitzekin osatu dut hiztegi bat.

1. TERMINOLOGIAREN SORRERA

Zientziaren ezaguera nazioartera zabaltzea zuten helburu terminologiako lehenengo normalizazio-lanek. XVII. eta XVIII. mendeetan izan ziren normalizazio-lan horiek. XX. mendeko hirugarren hamarkadan ezarri zen diziplina gisa terminologia, Eugene Wüster-en lanari esker, Vienan. Teknologiaren garapen azkarrak kontzeptu berriak sortzeko edo izendatzeko beharra ekarri zuen XX. mendean, ondorioz teknikariak izan ziren normalizazioa sustatu zutenak. Alde batetik, zientzialariak zeuden; hauek nomenklatura grekolatindarrak erabiltzen zituzten. Bestetik, teknikariak zeuden. Hauek bizirik zeuden hizkuntzetako unitateak erabiltzen zituzten. Bi eskola sortu ziren, beraz: Vienako eskola {Eugene Wüster austriarra fundatzailea (1898-1977)} eta terminologiako eskola sobietarra {Dimitri Semionovich Lotte errusiarra izan zen fundatzailea (1889-1950)} (Imaz Leuna, 2012).

1. 1. Terminologiaren Teoria Klasikoa eta terminologiaren kudeaketarako metodologia oinarriak

Terminologiaren kudeaketarako metodologia oinarriak ezarri zituen Wüster ingeniari austriarra izan zen (bere Terminologia Teknikoaren nazioarteko normalizazioa -1931-doktorego-lanarekin). Metodologia zehatza ezarri zuen terminologia-lanerako. Nazioartean batez ere, terminoak normalizatu eta kontzeptuak bildu behar ziren, unibokotasuna ziurtatu nahi zelako komunikazio profesionalean (Imaz Leuna, 2012).

Wüsterren teoria logikan oinarritzen zen, eta komunikazio uniforme eta hizkuntza unibertsala bilatzen zituen. Teoria horren arabera, kontzeptu batek unibokoa izan behar zuen, hau da, anbiguotasunik sor ez zedin kontzeptu batek izendapen bakar bat eduki beharko zuen (Imaz Leuna, 2012).

Terminologia-lanaren estandarizazioa zen helburu Terminologiaren Teoria Klasiko horretan. Kontzeptua izendapena egin aurretik onartzen zen eta monosemia eta unibokotasuna ziren terminoaren bereizgarri nagusiak. Terminologia ez zen hizkuntza naturala. Teoria horri jarraituz, terminoak ikuspegi sinkronikotik aztertu behar ziren (San Martín, 2013).

Beraz, Terminologiaren Teoria Klasikoak honela definitu izan ohi du “termino ideala” (Imaz Leuna, 2012):

-Monosemikoa (termino bat → kontzeptu bat).

-Unibokoa (terminoa → kontzeptua).

-Erreferentzia bakarrekia.

-Especialitate-eremu batekoa.

-Motibatua (motibazio semantikoa).

-Eratorpenerako aukera ematen duena.

-Konnotaziorik gabea.

-Laburra eta gardena (izendatzen duen kontzeptua islatu behar du).

Teoria klasiko horri hainbat kritika egin zaizkio: garrantzi handiagoa eman zaio terminoek gizartean duten ezarpenari estandarizazioari baino. Estandarizazio eta normalizazio terminoak nahasten dira. Adierazi bezala, hainbat kritika egin izan zaizkio teoria klasiko horri, eta laurogeita hamarrek hamarkadan hiru ildo teoriko sortu ziren: Sozioterminologia, Teoria Soziokognitiboa eta Terminologiaren Teoria Komunikatiboa. Teoria ildo horiek terminologia-lanerako oinarri desberdinak ezarri zituzten: 1) hizkuntza naturala da terminologia eta aktibatzen da komunikazio espezializatua erabiltzen duenean; 2) kontzeptuak testuei esker existitzen dira; 3) aldakortasunaren azterketa interesatzen zaigu (izan ere, monosemia eta unibokotasuna idealizazioak dira); 4) terminoen diakronia eskatzen du kontzeptuen eta terminoen aldakortasunak (San Martin, 2013).

Ildo horretatik, terminologia lantzeko eta aztertzeko metodologia berria agertzen da: 1) terminologia aztertzeko terminoaren erabileraren deskripziotik abiatu behar da (testuetan dituen agerpenetatik); 2) terminoak komunikazio egoera desberdinetan duen aldakortasuna hartu behar da kontuan; 3) terminoak denboran zehar aldatzen direla kontuan hartzen bada, orduan, azterketa diakronikoak azpimarratu beharko dira (San Martin, 2013).

Beraz, aurrekoa kontuan hartuz, adituek erabiltzen duten terminologia erreala nolakoa den aztertzea bada helburua, hau da, nola sortzen eta aldatzen den jakitea, orduan, ezinbesteko izango dira adituek erabiltzen dituzten testuak corpus batean antolatuta izatea. Modu horretan, ikerketa sakona ahalbidetzen da (San Martin, 2013).

2. TERMINOLOGIA-LANA EUSKAL HERRIAN: ARLO JURIDIKOA AZPIMARRATUZ

Hizkera juridikoaren ezaugarriak bereizgarriena terminologia da. Zuzenbidearen jakintza biltzen dute termino juridiko horiek (Lozano, 1997).

1978. urtetik, itzultzaile talde batek sortu eta garatzen zuen euskarazko hizkera juridiko-administratiboa. Izan ere, denbora luzez horrelako euskarazko testuen ehuneko ehuna gaztelerazko testuetatik egindako itzulpenak ziren (Elosegi, 2004).

Teknologia berriekin itzulpen-memoriak agertu ziren 1990eko hamarkadan. Momentura arte itzulita zeuden esaldi edo esaldi-unitateak kontsultatzeko aukera ematen zuten baliabideak ziren, hain zuzen. Erakunde ezberdinek egindako glosarioak kontsultatzeko aukera zegoen. Horrekin batera Euskalterm terminologia-bankua sortu zen, aukera ematen zuena termino batek zuen erabilera-maiztasuna Interneten aztertzeko (Imaz leuna, 2012).

Azpimarratzekoak dira HAEE/IVAPek antolatutako Administrazio hizkera eta Terminologiako Jardunaldiak, 1989. urtean egin zirenak, hain zuzen. Jardunaldi horietara bertaratu ziren besteak beste, terminologoak, notarioak, abokatuak, itzultzaileak, Unibertsitate ezberdinetako kideak... Pertsona horiek guztiek momentuko euskararen egoeraz aritu ziren, arazoak deskribapenak eginez, konponbideak topatu nahian. Momentu horretatik aurrera, nahiz eta era geldoan izan, euskarazko testu juridiko-administratiboen desberdintasunak gutxitu ziren (Elosegi, 2004).

Aipatutako jardunaldiez gain, azpimarratzekoak dira baita ere 1990eko hamarkadan argitaratutako lexikografia orokorreko lan batzuk: Orotariko Euskal Hiztegia (OEH), Lexiko Erizpideen Finkapena (LEF) batzordeak egindakoak... adibidez. Hala ere, gaur egun, euskarazko testu juridikoen ekoizle taldeek beren bide propioak erabiltzen dituzte Deustuko Unibertsitateko irakasleek, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek, IVAPeko itzultzaileek... (Elosegi, 2004).

Unibertsitate Zerbitzuetako Euskal Institutuaren (UZEI) eskutik agertu ziren espezialitate hiztegiak (1997. urtetik aurrera). Euskalterm terminologia bankua sortu zuen UZEIk 1987an, eta momentuan zeuden hiztegi terminologiko guztiak bertan integratu zituen (Imaz Leuna, 2012).

2001ean Terminologia Mintegia antolatu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Bertan izan ziren Quebec-eko Gobernuko Office Québécois de la Langue Françaiseko (OQLF) kideak, Euskal Herriko aditu talde batekin batera. Helburua zen OQLFko esperientzia, lan-metodologia eta normalizazio-irizpideak gertutik ezagutzea. Aipatutako urte berean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak “Euskal Terminologia Banku Publikoa” sortu zuen, Euskalterm (1987) terminologia bankua oinarritzat hartuz.

Terminologia Batzordea sortu zen 2002. urtean. Bere egitekoen artean: 1) terminologia munduan dauden lehentasunak finkatu; 2) lan proposamenak egin (urteko jardueraplanean jasoz); 3) terminologia-lanerako irizpideak finkatu; 4) termino bat baino gehiago dagoenean termino egokiena aukeratu; 5) aztertutako terminologia-lanak onetsi; 6) finkatutako terminologia zabaltzeko bideak proposatu; 7) onetsitako terminologiaren erabilera gomendatu.

Hurrengo urtean, 2003an, Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua argitaratu zuen. Eta hurrengokoa, 2004an irizpideen txostena. Nazioarteko terminologian erabiltzen diren irizpideak jasotzen dira txostenean eta horiek dira Terminologia Batzordeak kontuan hartu behar dituenak (Imaz Leuna, 2012).

Euskal Herriko unibertsitate desberdinetan egiten diren ekimenak eta lanak ere azpimarratzekoak dira.

Aipatzekoa da Deustok lege-testuetako aurkibide analitikoetan egindako terminologia-lana. Izan ere, Deustuko lege-testuen bilduma osoan aurkibide elebidunak agertzen dira (euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara). Aurkibideak bilaketak errazteko tresnak eta hiztegi gisa erabiltzen dira. Aurkibide analitiko hauek lege-testuen artikuluei erreferentzia egiten dietenez, irakurleak artikulua horietara jo dezake terminoaren testuinguruan kokatzeko aukera lortuz. Hiztegi batuaz gain, itzulpenak egiteko bestelako iturri batzuk ere erabiltzen dituzte Deustun; merkatuan dauden hiztegi orokorrak eta terminologikoak, hain zuzen. Ezinbesteko tresna ere izan dute Euskalterm banku terminologikoa. Hala ere, Deustuko Unibertsitateak badu abiapuntu gisa datu-base bat eta testuen hustuketan lortutako datutegia non lexiko juridikoa biltzen duen (Urrutia, 2004).

Euskal Herriko Zuzenbide Fakultateari dagokionez, azpimarratzekoa da 1990eko hamarkadan sortu zen Euskara Juridikoaren Mintegia¹. Gaur egun Euskara Juridikoaren

¹ https://www.euskara-juridikoa.eus/fitxategiak/files/UPV_EHUren%20Euskara%20Juridikoaren%20Mintegia-2.pdf

Mintegia Zuzenbide Fakultateko Dekanotzaren egituran txertatzen da, Dekanotzaren eta fakultateko Euskara Batzordearen eremuan, hain zuzen (Alkorta, 2004).

Ikastaroak antolatzeaz gain, Euskara Juridikoaren Mintegiak hainbat ekimen bideratu ditu, eta horietako bat terminologiari buruzkoa izan zen. Momentu hartan, eskolak eman beharrak bultzatuta eta irakaskuntza programetan agertzen ziren arazoak konpondu nahian, irakasle bakoitzak bakarka egindako lan terminologikoa batu nahi zuten. Lan horretan bi bekadun jarri zituzten. Bekadun horiek irakaskuntza programak hustu zituzten eta aukera terminologikoen gaineko iradokizunak egin zituzten. Lan horrekin irakasgai bakoitzean funtzionatzen hasi ziren (Alkorta, 2004).

Nola irakaskuntza programak bateratzea ez zen nahikoa, zenbait irakasgaietako irakasleak arlo bakoitzeko terminologia berezitua lantzen hasi ziren.

Alkortak (2004) azpimarratu nahi du 1998. urteaz geroztik Zuzenbide Zibileko irakasleek egindako lana. Lan horrekin bostehun hitzeko glosarioa lortu zuten (Zuzenbide Zibileko irakasleak: Xanti Goñi, Mikel Karrera eta Itziar Alkorta. Euskara juridikoko irakaslea, Antton Elozegi eta UZEIko Miel Loinaz eta Leire Zenazurrabeitia). Lan hori 2000. urtean argitaratu zen Unibertsitate barruko erabilerarako. Gainera, UZEIren bitartez Euskalterm banku terminologikoa elikatzeke erabili zen lan hori.

Egun unibertsitateak euskaraz irakasten dituen gai espezializatuak dituenek, ezinbestekoak dira hizkuntza-baliabide espezializatuak. Horrela sortu ziren Garaterm edo TSE bezalako programak, unibertsitatean lantzen diren espezializazio arloetako erregistroen garapenean eta ezarpenean laguntzea helburu dutenak, hain zuzen.

2. 1. Euskal terminologia juridikoaren eragileak

Euskarazko terminologia garatzeko bidean egindako proiektuen artean ondorengoak dira aipatzekoak:

EUSKALTZAINDIA

-Orotariko Euskal Hiztegia², nahitaezko erreferentzia da hiztegi gintzan dabilzatenentzat. Hiztegi historikoa da, eta bertan euskaraz idatzi diren liburu esanguratsu gehienak jaso dira (Lobera, Urrutia, 1997).

²http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=276&Itemid=413&lang=eu

HAEE/IVAP

-HAEE/IVAP: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak administrazio eremuan nagusiki bi arlo lantzen ditu: 1) euskararen erabileraren normalizazioa erakunde publikoetan; 2) erakunde horietan lan egingo duten langilek aukeratu eta presatu. Bere web orrialdean aipatutako helburuak bete daitezten baliabide batzuk eskaintzen ditu. Nagusiak hiru dira: DudaNet, ELET eta Argitalpenak. DudaNet doako zerbitzua da zeinetan interesatuek eta erakundeek beraiek dituzten kontsultak bidaltzen dituzten eta bertako adituek erantzuten saiatuko diren. ELET aplikazio informatikoa da. Euskaraz lan egiteko baliabide eta tresna desberdinak eskaintzen ditu (dela Torre, 2011).

UZEI

-UZEI Terminologia eta Lexikografia zentroa: 1977. urtetik lanean dabilen irabazi asmorik gabeko elkarte da. Hiztegi gintza, Euskaltzaindiarentzat ikerketa lanak eta arloko hiztegi teknikoak landu ditu. Euskal lexikoaren eboluzioa etengabe aztertu du, baita aritu da itzulpen gintza teknikoan, zuzenbide arloan izugarriko garrantzia izan duena (Etxabe, 2011).

-Euskalterm: terminologia-lana kudeatzeko, antolatze eta koordinatzeko tresna oso garrantzitsua da. UZEIk 1987an sortu zuen. UZEIk sortutako datu-banku terminologikoak batzen zuen Zuzenbide Hiztegia. Zuzenbide Hiztegi hori 1985an egin zuten kanpoko hainbat adituren adostasunarekin. Euskaltermek UZEIk eta beste enpresa batzuek egindako lanak eta egun arte bateratu den terminologia du oinarri. Eusko Jaurlaritzaren Euskal Terminologia Banku Publikoa da (Díaz de Lezana, 2003; UZEI, 2010).

EUSKO JAURLARITZA

-Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila: agiri judizialak euskaraz eta gazteleraz egiteko sistema garatu du. Euskara plangintza bultzatuz sortu zuen 2002. urtean EPAINET. Baliabide honen bitartez epaitegi-tako euskarazko langileen euskarazko idatzizko eta ahozko komunikazioa garatu nahi zen, agiriak elebidunak erabiliz. UZEI-rekin batera hainbat lan eta ekimen egin ditu Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak. Horietako bat Epaitegi-tako Agiriak Normalizatzeko Batzordea izan da, 1996. urtetik egunera arte lanean jarraitzen duena, hain zuzen. Batzorde honen egitekoa arazo terminologiko eta fraseologikoak eztabaidatu eta adostea da. Euskara juridikoarekin harreman desberdina

duten adituak (UZEIko ordezkari, unibertsitateko irakasle, epaile, abokatu eta Justizia Saileko teknikari eta itzultzaileak) batzen dira bertan (Etxabe, 2011; Díaz de Lezana, 2003; Díaz de Lezana, 2010).

EUSKO LEGEBILTZARRA

-Eusko Legebiltzarraren hizkuntza baliabideak³: web orrialde bat dauka eta bertan euskara normalizatzeko baliabideak ditu. Arlo administratibo eta juridikoko profesionalek akatsak ez egiteko edo gutxitzeko Eusko Legebiltzarrak egindako lana azpimarratzekoa da. Euskararen erabilera normalizatzeko planak esaterako. Eusko Legebiltzarrak eskaintzen dituen baliabideak dira: euskara-gaztelania datu base terminologikoa, idazkera arauak eta hiztegia (definizioak) (Arrieta Mariño, 2009).

UPV/EHU

-Garaterm⁴: nola unibertsitateak euskaraz irakasten dituen gai espezializatuak, ezinbestekoak dira hizkuntza-baliabide espezializatuak. Egoera horretan, Garatermek hainbat baliabide garatu ditu terminologia ikusgai egiteko. Lan horretarako elkarlanean aritu dira Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saileko eta Lengoaia eta Sistema Informatikoko Saileko ikertzaile batzuk, Elhuyar Fundazioko I+G taldeko beste ikertzaile batzuekin batera.

-Terminologia Zerbitzuko On-line Sistema (TZOS): 2006. urtean Ingeniaritza Informatikoko karrera bukaerako proiektu baten sortu zen sistema hau. Egun Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin ekimen bat dago Euskal Herriko Unibertsitatean sartzeko. Tresna honen bitartez erabiltzaile desberdinen eskuetan jartzen da hiztegien kudeaketa. Datu-base terminologiko honek terminologiako informazioaren inportazioa eta esportazioa egiteko aukera ematen du, hau da, termino zerrendak edo glosarioak gorde daitezke bertan eta horiek esporta daitezke formatu desberdinetara. Tresna eleaniztuna da. Lehenengo prototipoan euskarazko, frantsesezko, ingeleseko eta gaztelaniazko terminoak kudeatzeko egitura egin zen. Terminoak mundu akademikoan maneiatzeko beharraren ondorioz sortutako tresna da (Arregi X., Arruate A., Artola X., Lersundi M., Santander G., eta Umbelina J., 2010).

³ http://www.legebiltzarra.eus/recursos/e_recursos_interjurid.html#Hiztegi%20juridikoak

⁴ http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/eu

-Terminologia Sareak Ehunduz (TSE): 2008an GARATERM sortutako programa da TSE. TSE programak Euskal Herriko Unibertsitatean lantzen diren espezializazio arloetako erregistroen garapenean eta ezarpenean laguntzea du helburu. Aipatutako arazoei aurre egiteko irakasleek erabilitako testuak jaso eta horietan erabiltzen den terminologia deskribatzeko metodologia eta baliabideak garatu dira. Azken urteetan programa honen helburua irakasleen arteko sareak sortu eta baliabide linguistikoak eztabaidatzea, finkatzea eta partekatzea izan da (San Martin, 2013).

-EHUren Testu Biltegia⁵: bertan, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek egindako ikasmaterialak eskaintzen dira. Horrez gain, argitaratutako testuetan edo horietatik aukeratzeko dituzuenetan terminoen bilaketa (testu bakoitzaren testuinguruan) egiteko aukera eskaintzen da. Baita ere glosarioak kontsultatzeko aukera.

-Euskara Juridikoaren Atariaren glosario juridikoa⁶: Legeak/Leyes ataleko lege-testuen lexiko juridikoa eta terminologia elebiduna biltzen du.

-Zuzenbide corpora⁷: Euskara Institutuak Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko Euskara Juridikoaren Mintegiarekin batera garatutako ekimena da. Helburua da euskara juridikoaren eragileek sortutako testuak eskuragarri jartzea. Corpus honetan kontsulta daitezke 2000. urtetik euskaraz egindako Zientzia Juridikoen arloko artikulu, eskuliburu, lege-testu eta dokumentu nagusiak.

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

-Deustuko Unibertsitatearen Hiztegi Juridikoak: Euskal Gaien Institutuko web-orrialdean eskaintzen dira hiztegi hauek. Zuzenbidearen adarraren arabera sailkatuta daude. Lexiko espezializatua, terminologia eta fraseologia juridikoa jorratzen dira hiztegi hauetan.

EUSKO IKASKUNTZA

-Eleria⁸: Eusko Ikaskuntzak eskaintzen duen aldizkaria da. Euskara juridikoaren normalizazioa eta bultzatzea ditu helburu; mundu akademikoan eta mundu

⁵ <http://testubiltegia.ehu.es/>

⁶ <https://www.euskara-juridikoa.eus/legeak/glosategia>

⁷ <https://www.euskara-juridikoa.eus/legeak/corpora>

⁸ <http://www.eusko-ikaskuntza.org/eu/argitalpenak/eleria-euskal-herriko-legelarien-aldizkaria/bi-109/>

profesionalean. Aldizkariak helburu du Zuzenbidean jarduten dutenen jakintzak zabaltzea. Urtean behin argitaratzen da, nahiz eta urte batzuetan ale bat baino gehiago kaleratzen den. Aldizkariak gai ugari tratatzen dituen arren, izan dira ale batzuek non gai bakarra jorratu den monografiko bihurtuz.

ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA

-Iusplaza⁹: Zuzenbidea eta hizkuntza batera emateko beharra dago euskararen normalizazio bidean. Webgune hau bultzatzen dute: Zuzenbidearen Euskal Akademia, Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Administrazio Saila, Bizkaiko Foru Aldundia, IVAP, Deustuko Unibertsitatea, eta BBK kutxa, besteak beste. Arloz landutako zuzenbideko materialak, legeria, doktrina agertzen dira orrialdean bertan: 1.125 erreferentzia ditu guztira web orrialdeak. Horrez gain, 7.901.017 hitz kopuruz osatutako corpora du bilaketak egiteko, testua zein testuinguruak jasotzeko. Euskaraz sortutako bibliografia ere badago. Hiztegi elebidun berria dago bertan, aurkibide analitikoa duena. Bi hizkuntzen arteko ordainak eta horiek duten testu kokapena agertzen dira.

-Forulege¹⁰: Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilbo Bizkaia Kutzak babesten dute eta Bizkai Jaurerriko Abokatuen Bazkun dute laguntzaile. Web orrialde hau ondorengo atalak ditu: formularioak, legeria (euskal zuzenbide foralari buruzkoa), bloga, euskal zuzenbide zibilaren arloko galderak eta erantzunak eta bilaketak egiteko atalak daude (Maeso, 2011).

2. 1. 2. Normalizazio prozesuan euskarazko termino juridiko egokiaren bila

Kontuan hartu behar da euskarazko termino juridiko gehienak erdaratik hartutakoak direla. Beraz, erdarazko kontzeptu sareak hartzea beharrezkoa izango da euskarazko terminoak sortzeko (Lobera, Urrutia, 1997).

Hizkuntza bateko terminoek dituzten kontzeptuek ez dute ezinbestean beste hizkuntza bateko termino baliokideak duen kontzeptu bera adierazi behar. Hau da, ez da egokia erdarazko kontzeptu bati euskarazko baliokide bat bilatzea eta baliokide bakar horretara

⁹ <http://www.iusplaza.com/>

¹⁰ <http://www.forulege.com/dokumentuak/Administrazioa%20euskaraz.pdf>

mugatzea. Beste hizkuntzetako termino juridikoen baliokideak emateko aukera desberdinak daude (Lobera, Urrutia, 1997):

1) Kontzeptua adierazteko euskal termino bakarra dagoenean: terminoa zehaztu, finkatu, estandarizatu eta erabili behar da.

2) Gaztelaniazko kontzeptu bat emateko euskal hitz bat baino gehiago dagoenean, zenbait irizpide hartu behar dira kontuan: a) aukeran ditugun hitzen artean monosemikoa den bat badago, orduan hitz hori aukeratuko da, adibidez, “*Tribunal de Justicia*” terminoak hainbat aukera ditu euskaraz (*Epaimahai, Auzitegi, Epaitegi...*), aukera horien artean termino monosemikoa *Auzitegi* dugu; b) eratorzea ahalbidetzen duen hitza aukeratu hautagai dauden hitzen artean, adibidez, gaztelaniazko “*Parlamento*” hitza euskaraz adierazteko *Legebiltzar* hitza aukeratzen badugu, gaztelaniazko “*Parlamentarismo*” ematea *Legebiltzar*-aren erroa erabiliz ez da izango gauza erraza; c) ikusi behar da euskal erabiltzaileen artean nolako harrera duen aukeratutako terminoak, adibidez, *Administrazio Publiko* adierazteko *Herri Arduralaritza* erabiltzea.

3) Kontzeptua emateko euskal hitzik ez dugunean, hitz berriak behar ditugu. Hitz berria proposatzeko bete behar dituen baldintzak dira: hizkuntzaren sistemarekin bat etortzeko gaitasuna izan behar du; beste termino batzuk eratorzeko gaitasuna izan behar du; erabiltzaileek eta erakundeek onartutakoa izan behar da eta hedapena duen hitza izan behar da.

Euskarazko hitz berrien sorketarako hiru bide daude: a) hitz-elkarketa (hitz berria sortu bi edo hiru hitz elkartzuz); b) eratorpena (hitz berri bat sortu hitz bati aurrezki edo atzizki bat jarritz); c) maileguak (beste hizkuntzetatik jasotako hitzak dira) (Lobera, Urrutia, 1997).

Hitz mailegatu bat baino gehiago dagoenean kontzeptu bera adierazteko, bi aukera daude hautaketa egiteko: 1) bi hizkuntzetako hitzak antzekoak direnean, euskararen arau fonetikoetara moldatuko da hitza; 2) hizkuntza desberdineko hitzak inolako antzik ez dutenean horietako bat aukeratu beharko da.

Euskal ordaina aukeratzen denean gerta liteke: 1) arazorik ez izatea, hau da, jatorrizko terminoa eta euskal ordaina baliokide osoak izatea, adibidez, “*Alcalde*” esateko *alkate* erabiltzea; 2) arazoak izatea aukeratutako euskal ordaina hainbat kontzeptu adierazteko erabiltzen delako, adibidez, erabaki hitzak hainbat baliokide ditu gaztelaniaz, “*Acuerdo*”,

“*Decisión*”, “*Disposición*”, “*Resolución*”...; 3) arazoak sortzen dira euskal ordaina murrizta geratzen denean, eta maileguetara jo beharko da, adibidez, gaztelera-ko “*Corporación Local*”, euskarazko ordaina murrizta duenez, *udalbatza*, maileguetara jo behar dugu, eta horren ordean, *Toki Korporazio* erabili (Lobera, Urrutia, 1997).

Beraz, testu horien idazleen lana da termino juridiko eta hitz arrunten arteko proportzioa bermatzea. Lozanok (1997) euskal hiztegi juridikoak dituen arazo batzuk azaltzen ditu, besteak beste:

-Bateratutako hitzak: ekoizle bakoitzak (administrazioko erakundeak, fakultate bakoitzak...) bere terminoak (ekoizleak bakoitzak sortutakoak) erabiltzen ditu kontzeptu berak adierazteko. Hainbeste hitz desberdin egoteak kontzeptu bakarrerako nahasgarritasuna sortzen du.

-Maileguak: beste hizkuntzetako hitzak bereganatzean. Izan ere, euskaraz ideia bera adierazteko beste hitzik dagoen ikusi beharko da lehenengo.

-Hitz laburrak: gauza bera adierazteko erro bereko bi hitz ditugunean, laburraren alde egitea komeni da, hobeto gogoratzen edo barneratzen delako: *araupetzea/arautzea*; *legeznotasunez/legez*, adibidez.

2. 2. Euskal terminologia juridikoaren batasun falta

Lan honen helburua da euskal terminologia juridikoak duen batasun falta egiaztatzea. Izan ere, lan honek artikulu hau du oinarri: Antton Elosegik (2004) *Eleria* aldizkarian idatzitako “Euskara juridikoak 25 urte betetzen dituen. Gogoeta batzuk euskara juridikoaren garabidearen gainean” artikulua, hain zuzen. Eta, Elosegik artikulu hori idazteko oinarri hartzen du berak 2002an argitaratutako doktorego tesia. Tesi horretan aztertu zuen *corpus*-a, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko aldizkari ofizialetako legeria du iturri.

Izan ere, euskarak ofizialtasuna berreskuratu zuen Espainiako Konstituzio eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuarekin. Eta esaten da egungo hizkera juridikoak garai horretan duela abiapuntua, eragin garrantzitsua izan zuten beraz, Eusko Kontseiluko aldizkariak eta ondorengo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak (Elosegi, 2004).

Lehenago adierazi bezala, 1978. urtetik, itzultzaile talde batek sortu eta garatzen zuen euskarazko hizkera juridiko-administratiboa. Euskarazko testuen ehuneko ehuna

gaztelera-zko testuetatik egindako itzulpenak zirelako. Ez zen lan erraza, itzultzaileek ez zuten inolako eredurik (Elosegi, 2004).

Kontuan hartu behar da itzulitako testu horien balio komunikatiboa eta duten ulergarritasuna; izan ere, bi hizkuntzetan argitaratzen ziren testuak, hau da, testu elebidunak ziren. Gainera, erdarazko testua da aurretik agertzen zena, ondorioz testu hori zen irakurtzen zena eta erabilgarritasun handiena zuena (Elosegi, 2004).

1980ko hamarkadan polisemiaren eta sinonimoaren arazoak agertu ziren. Izan ere, itzultzaile bakoitzak bere kabuz egiten zuen lan, eta beste itzultzaile batek egindako lana (termino bera lehenago itzuli) ikertzeko baliabiderik ez denborarik ez zuten (Imaz Leuna, 2012). Adierazi bezala, euskarazko testuen ekoizleak talde txikitan batzen ziren itzultzaileak ziren. Hala ere, urte batzuk geroago bi koordinazio gunetan batu ziren: UZEI eta HAEE (Elosegi, 2004).

Egoera hori terminologian nabaritzen da. Izan ere, kasu batzuetan, gaztelaniazko terminoarentzako euskarazko ordaina ematean, kalkoaren eta maileguaren agerpena ugaria da (1980 arte mailegu ugari dago –bere azterketako emaitzetan horrela agertzen da-). Terminoen baliokideak eratzeko erruz erabiltzen da elkarketa eta eratorpena, eta kasu askotan tradizio eskaseko moldeak erabiltzen dira. Elosegik dio ez dagoela finkatuta hasieratik bukaerara zein den gaztelaniazko termino bati dagokion euskarazko baliokidea. Izan ere, hainbat kasutan, gaztelaniazko termino baten ordainetan ez da euskarazko terminoa ematen, eta horren ordean ematen da haren esanahia duen itzulinguru bat, esaldi bat edo erlatibodun sintagma bat. Eta, batzuetan, mailegutara ez jotzeko, terminoen esanahia interpretatzeko ahaleginak egiten dira; horretarako, hitz elkartuak, eratorriak, sintagmak erabiltzen dira. Nahiz eta 1990etik aurrera maileguzkoetara jotzen den berriro (berak egindako azterketako datuetan oinarrituz). Hori dela eta, gaztelaniazko termino batentzat euskarazko aldaera anitz izatea ez da harrizkeoa. Izan ere, Elosegiren azterketan, erdarako termino bakoitzeko 3,24 euskal baliokide daude *corpus*-ean batz bestea. Eta, euskal izendapen berriak sortzeko joera ez dela desagertzen dirudi; berak aztertutako *corpus*-ean forma berriak etengabe aurkitu ditu eta. Eta testu baten koherentzia terminologikoari eusteko, normalean forma bakarraz (edo antzekoaz) erantzuten zaio termino bati. Ikusienez, gertatzen ez zena erdal termino bakoitzeko hainbeste euskal ordain erabiltzen baitziren.

Horregatik dira azpimarratzekoak lehenago aipatutako HAEE/IVAPek antolatutako Administrazio hizkera eta Terminologiazko Jardunaldiak (1989). Jardunaldi horietara bertaratu zirelako besteak beste, terminologoak, notarioak, abokatuak, itzultzaileak, Unibertsitate ezberdinetako kideak... Eta, guztiak momentuko euskararen egoeraz aritu ziren, arazoek deskribapenak eginez, konponbideak topatu nahian. Une horretatik aurrera, nahiz eta era geldoan izan, euskarazko testu juridiko-administratiboek desberdintasunak gutxitu ziren (Elosegi, 2004).

Aipatutako jardunaldiez gain, azpimarratzekoak dira, baita ere, 1990eko hamarkadan argitaratutako lexikografia orokorreko lan batzuk: Orotariko Euskal Hiztegia (OEH), Lexiko Erizpideen Finkapena (LEF) batzordeak egindakoak... adibidez. Hala ere, gaur egun, euskarazko testu juridikoen ekoizle taldeek beren bide propioak erabiltzen dituzte Deustuko Unibertsitateko irakasleek, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek, IVAPeko itzultzaileek... Euskarazko testuen batasun maila handitu den arren, oraindik zuzenbideko testuen “eskolak” nabaritzen dira. Badirudi “eskola” bakoitzak duen ereduari jarraitzen diola (Elosegi, 2004).

Beraz, 90eko hamarkadan, muturreko ereduaren desagertzea gertatu zen, nahiz eta aipatu bezala “eskolak” nabaritzen diren.

Elosegik (2004) dio hizkera berezi batek duen garapena, hizkera horrek duen erabilerekin lotzen dela. Eta, Zuzenbideko hizkerari buruz ari garenean, kontuan hartu behar da, Zuzenbideak azpi-hizkerak dituela, horietako bakoitzak bere terminologia propioa izango duena, hain zuen. Kontua da, azpi-hizkera horiek beren artean desorekan daudela; izan ere, horietako batzuk gehiago jorratu dira (administrazio, Zuzenbide Zibila adibidez), beste batzuk baino (Merkataritza Zuzenbidea, esaterako).

Euskalterm da datu base nagusia terminologia arloan, nahiz eta egungo behar guztiei erantzuten ez dien. Beraz, euskal testu juridikoen sortzaile, ekoizle eta itzultzaileek lan egiten dute beti zalantzekin (Elosegi, 2004).

Testu juridikoen sortzaile direnen egitekoa izango da terminologikoa zer den eta ez bereiztea. Lan hori egingo du terminologia aukeratuz, finkatuz eta etengabeko aldaketak jarraituz. Horrez gain, Zuzenbideko hizkeraren azpi-hizkerak eta horietan erabiltzen diren erregistro desberdinak ezagutu eta menperatu beharko ditu testu juridikoen ekoizleak. Euskaltzaindiaren Arauak ezagutzea ez da nahikoa izango. Arlo juridikoko beste ekoizle

eta eragileekin harremanetan egoteaz gain, datu-base berezituak ere erabili beharko ditu (Elosegi, 2004).

3. EUSKAL ZUZENBIDE ZIBILARI BURUZKO LEGEEN AZTERKETA

Imaz irakasleak dio arazo terminologikoa dagoela legeek termino desberdinak erabiltzen dituztelako Euskal Zuzenbide Zibila adierazteko. Elosegik aipatzen zuen batasun terminologiko ezaren adibidea dugu, beraz. Zehazki hauetako zein termino den egokiena erabakitzea izango da gakoa: 1) konstituzioan: *derechos civiles, forales o especiales*; 2) Euskal Herriko Autonomia Estatutuan: *Derecho Civil Foral Y especial*. Imaz irakasleak adierazten du pribilegioak eta foruak berdintzeko joera dagoela. Izan ere, *foru* hitzak badu beste esanahi bat Zuzenbide Zibilean. Foru-zuzenbidea osatzen dute askatasunean oinarritutako ohituretatik sortu eta batu diren arau juridikoek. Foru-arauak lege orokorrak dira sortu diren lurraldean. Azken bi mendeetan foru-zuzenbidea foru-jatorria duen zuzenbide pribatuarekin berdindu da. Hori dela eta, euskal foru ondaretik bizirik iraun duten bertako erakunde zibilek osatutako multzoari ere esaten zaio foru-zuzenbidea (Imaz, 2007:1-2).

Baina ez gara *foru* hitzaren esanahian sartuko. Atal honetan, Euskal Zuzenbide Zibileko terminologiak eta Zuzenbide Zibileko terminologiak 23 urtetan aldaketarik izan duen aztertuko dut. Horretarako Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko bi lege aztertuko ditut. Izan ere, bigarrenak aurreko legea ordeztzen du:

-3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru-zuzenbide Zibilari buruzkoa.

-5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari Buruzkoa.

3. 1. Metodologia

Aipatutako bi legeen konparaketa egiteko Forulege webgunetik lortutako bi legeen baliokidetasun taula bat erabili dut. Taula hau ezinbestekoa izan da; izan ere, adierazi bezala, lege batek bestea ordeztzen du. Beraz, legearen edukia aldatu denez, kapituluak eta artikulua ere aldatu dira. Hori dela eta, 3/1992ko Legeko 125. artikulua (ezkontzaren araubide ekonomikoari buruzkoa), orain, 5/2015eko Legeko 93. artikuluan arautzen da, adibidez. Gainera, badira artikulua batzuk baliokidetasunik ez dutenak, beraz, artikulua horiek konparatu gabe geratu dira. Baina gainerako guztiak bai. Lortutako baliokidetasun taula gaztelaniaz dago, beraz, artikuluz artikulua termino berdinak erabiltzen ziren aztertu dut (kasu batzuetan errazagoa izan da, artikulua ia aldatu ez delako; beste batzuetan nahiz

eta artikuluaeren erredakzioa aldatu izan, termino berak erabiltzen ziren). Ondoren euskarazko bertsioetan artikuluz artikulua termino horietarako zein baliokide erabiltzen diren aztertu dut. Beraz, bi lege aztertu beharrean, lau aztertu ditut: bi legeen gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak. Hori izan da, egin dudana terminoen lehenengo hustuketa.

Baina, lehenengo hustuketa horretan lortutako termino batzuk juridikoak ote ziren zalantza nuen. Gainera ez nekien lortutako terminoetatik zeintzuk ziren Euskal Zuzenbide Zibilekoak eta zeintzuk Zuzenbide Zibilekoak. Hori dela eta, terminoen beste hiru hustuketa egin ditut, hiru iragazki desberdin erabiliz. Lehenengo iragazkia, Andrés Urrutiak (2014) egindako “Diccionario Terminológico de Derecho civil foral vasco” hiztegi terminologikoa izan da. Beraz, lehenengo terminologia hustuketan lortutako terminoak hiztegi terminologiko horretan agertzen ziren begiratu dut, eta bertan agertzen zirenekin bakarrik, osatu dut lehenengo taula, Euskal Zuzenbide Zibileko terminoen taula, hain zuzen.

Bigarren iragazki gisa, Deustuk (2010) argitaratutako “Zuzenbide Zibileko Berbategia”, eta Euskaltermeko terminologia bankua erabili ditut. Beraz, aipatutako hiztegian agertzen ziren terminoekin eta terminologia bankuan Zuzenbide Zibileko termino gisa agertzen zirenekin, bigarren taula bat osatu dut, Zuzenbide Zibileko terminoen taula, hain zuzen.

Hirugarren iragazki gisa, Deustuk (2005) argitaratutako “Oinarrizko Hiztegi Juridikoa” eta Euskaltermeko terminologia bankua erabili ditut. Beraz, sailkatu gabe geratzen ziren terminoak baliabide horietan agertzen ziren begiratu dut. Horietan baliabideetan agertzen zirenekin hirugarren taula bat osatu dut, Zuzenbide orokorreko eta bestelako Zuzenbide adarretako terminoek osatutakoa. Gainerako terminoak, juridikoak ez zirenak, (*partaidetza*, esaterako, ekonomiako terminoa) baztertu ditut.

Beraz, hiru taula egin ditut, nahiz eta azkena, terminologia zibilekoa ez denez, ez dudana aztertu. Adierazi behar dut termino batzuk hiru tauletan errepikatzen direla, baina, hori horrela da, begiraturako hiztegietan horrela agertzen direlako.

Adierazi bezala, aipatutako legeen gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak aztertu ditut. Beraz, taula ere horrela antolatu dut, hau da, gaztelaniazko terminoak batera jarri ditut eta baita euskarazkoak ere. Hobeto ulertzeko:

3/1992ko Legea (gaztelaniazko terminoa)	5/2015eko Legea (gaztelaniazko terminoa)	3/1992ko Legea (euskarazko terminoa)	5/2015eko Legea (euskarazko terminoa)
--	---	---	--

Modu horretan, lehenengo legean erabili zen terminoa aldatu den edo ez ikustea errazagoa zela iruditu zait. Ikusiko den bezala, gaztelaniazko bertsioiko erredakzioa zerbait aldatu bada ere, terminologia ez. Aldiz, euskarazko bertsioan aldaketa gehiago izan dira.

Aldaketak nabarmentzeko letra lodia erabili dut eta aldaketa horiek bereizteko koloreak. Zutabe guztiak (laurak) zuriz agertzen badira, orduan, erabiltzen diren gaztelaniazko terminoak (bi bertsioetan) eta euskarazkoak (bi bertsioetan) berdinak dira. Hau da, 23 urtetan ez da terminoa aldatu. Aldiz, koloreak badaude (urdina, berdera edo laranja), aldaketaren bat egon da. Kolore urdinez daudenak termino desberdinak dira. Kolore laranjaz daudenek, desberdintasun partziala dute. Eta berdez badaude, gaztelaniazko bertsioetan aldaketaren bat egon da, eta ondorioz, euskarazko bertsioa ere aldatu da.

Taula osoak eranskin gisa jarri ditut lanaren bukaeran.

3. 2. Hustutako terminoen azterketa

Aldakien sailkapen¹¹ honetan oinarritu naiz:

1. ALDAKI GRAFIKOAK:

- a) Aldaki ortografikoak (*ingeniaritza / injinerutza*)
- b) Siglen osagaien hurrenkera (*ADN / DNA*)
- c) Forma hedatua vs laburtzapena (*Harturiko immunoeskariaren sindromea / HIES*)
- d) Maiuskula vs minuskula (*Giza Genoma Proiektua / Giza genoma proiektua*)
- e) Izen elkartuetan marra bai vs ez (*kotizazio-aldia / kotizazioaldia*)

2. ALDAKI MORFOSINTAKTIKOAK:

- a) Mendekotasunezko vs atribuziozko izen elkartua (*gako-hitz / hitz-gako*)

¹¹ UPV/EHUko Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) programan erabili den sailkapenez baliatu naiz. http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/tse-programa/terminologia-sareak-ehunduz-2016/

- b) Izen elkartua vs [izlg+I] termino sintagmatikoa (*enpresaburu-elkarte* / *enpresaburuen elkarte*)
- c) Aposizioa vs [izlg+I] termino sintagmatikoa (*Golgi aparatua* / *Golgi-ren aparatua*)
- d) Izen elkartua vs [I.+erl.Adj.] termino sintagmatikoa (*sindikatu-kuota* / *kuota sindikala*)
- e) Izen elkartua vs eratorria (*landare-hobekuntza* / *fitohobekuntza*)
- f) [I+Adj.] vs [PP+I] (*gaixotasun hereditario* / *herentziazko gaixotasun*)

3. LABURKETAK:

- a) Oinarriaren ezabaketa (*izaki bizidun* / *bizidun*)
- b) Hedapenaren ezabaketa (*lan arloko eskubideak* / *lan-eskubideak*)
- c) Katgoria-aldaketa (*substantzia lasaigarri* (I+Adj.) / *lasaigarri* (I))
- d) Euskal termino luzea vs erdal termino laburtua (*sindikatu kide egitea* / *sindikatzeta*)

4. ALDAKI LEXIKOA:

- a) Euskarazko bi elementu (*alokairu* / *soldata*)
- b) Euskal termino bakuna vs konplexua (*atseden* / *atsedenaldi*)
- c) Mailegua vs euskal termino konplexua (*komisio* / *batzorde*)
- d) Kultur errodun terminoa vs euskal neologismoa (*zigoto* / *obulu ernaldtu*)
- e) Aldakotasuna atzizki eta aurrizkietan (*iraungitzea* / *iraungipena*)
- f) Aldakortasuna izen elkartuen oinarrian (*bidaiia-sariak* / *bidaiia-gastuak*)
- g) Aldakortasuna izen elkartuen modifikatzailean (*jubilazio-adina* / *erretiro-adina*)
- h) Termino sintagmatikoen oinarria (*ezinbesteko kasua* / *ezinbesteko egoera*)
- i) Termino sintagmatikoen hedapena (*derrigorrezko eszedentzia* / *nahitaezko eszedentzia*)
- j) Aldakortasuna oinarrian eta hedapenean (*lan-eskua trafikatzeta* / *langile-trafikoa*)

3. 2. 1. Euskal Zuzenbide Zibileko terminoen azterketa

Aipatutako bi legeetako terminoen konparaketan, “Diccionario Terminológico de Derecho civil foral vasco” hiztegi terminologikoan agertzen diren terminoak soilik sartu ditut taula honetan.

Taula honetan guztira 64 termino daude:

-Termino horietatik berdinak dira bai gazteleraz eta bai euskaraz bi legeetan: 22 termino, totalaren % 34,37a (ZURIZ agertzen diren guztiak).

-Termino horietatik desberdinak dira (kolore urdinez): 29 termino, totalaren % 45,31.

-Termino horietatik desberdintasun partziala dute (laranjaz): 4 termino, totalaren % 6,25a.

-Legeen gaztelaniazko bertsioan aldaketa bat egon da eta ondorioz euskarazko bertsioa ere aldatu da (berdez): 8 termino, totalaren % 12,5a.

Esan bezala, tauletan agertu diren aldakortasun kasuak aurreko sailkapenean oinarrituz antolatu ditut. Hau da, aldakortasun mota gehienak non kokatzen diren aztertu dut. Horrela, aldakortasun nabariena 4. multzoan, aldaki lexikoen multzoan kokatzen da, hain zuzen. Izan ere, taulan dagoen aldakortasun totalaren % 56,17 da.

Beraz, 4. multzo honen barruan agertu diren aldakiak aztertuko ditut orain. Maiztasun handiagoz agertu direnen artean mailegu vs euskal terminoa (4C), aldaki lexikoa dugu:

Zenbakia	3/1992ko Legea (gaztelaniaz)	5/2015eko Legea (gaztelaniaz)	3/1992ko Legea (euskaraz)	5/2015eko Legea (euskaraz)
11.	comisario	comisario	eskuordeko	komisario
14.	conmutar el usufructo	conmutar el usufructo	gozamena (...) baten truke alda dezake	kommutatu (...) gozamena
27.	fianza	fianza	berme	fidantza
32.	jurisprudencia	jurisprudencia	epaigintza	jurisprudentzia
44.	preterición	preterición	nahi	preterizio
45.	principio de libertad civil	principio de libertad civil	askatasun zibilaren oinarrien arau	askatasun zibilaren printzipioa

46.	principios generales del derecho	principios generales del Derecho	zuzenbide-oinarri orokorrek	zuzenbide printzipio orokorrek
52.	revocación	revocación	ezeztatu/errebokatu	ezeztatu

Lehenago adierazi bezala, letra lodia erabili dut desberdintasunak azpimarratzeko. Bost adibide hauetako lehenengo lauetan ikusten da nola lege berriak mailegutzara jotzen duen, aurreko legeak euskal terminoa erabiltzen duen kasuan. Berdez agertzen den kasuari dagokionez, aipamen berezirik ez dut egin behar; izan ere, adierazi bezala kolore horrekin margotu ditut legeetako gaztelaniazko bertsioa aldatu eta ondorioz, logikoa denez, euskarazko bertsioa ere aldatu diren kasuak. Hala ere, kasu honetan, gaztelerazko bertsioen aldaketa maiuskula bat besterik ez da, euskarazko bertsioan nabari ez dena.

Aldiz, bosgarren adibidea (52.), laranja dagoena, aldaketa partziala da. Lehenengo eta bigarren legean *ezeztatu* erabiltzen dute euskarazko ordain gisa; hala ere, lehenengo legean *errebokatu* mailegua ere erabiltzen da, bigarren legean agertzen ez dena.

Beraz, ikusi daitekeenez kasu batean izan ezik gainerako adibide guztietan lege berriak mailegutzara jotzen du euskarazko ordaina emateko.

Maiztasun proportzio berarekin agertzen da aldakortasuna oinarrian eta hedapenean (4J):

Zenbakia	3/1992ko Legea (gaztelaniaz)	5/2015eko Legea (gaztelaniaz)	3/1992ko Legea (euskaraz)	5/2015eko Legea (euskaraz)
25.	disolución de la comunicación foral	disolución de la comunicación foral	foru- komunikazio bukatu	foru- komunikazioaren desegitea
35.	liquidación de la sociedad conyugal	liquidación de la sociedad conyugal	ezkontzaren orduko ondasunen jaurpidea amaitzea	sozietatea likidatzea

42.	parte de libre disposición	parte de libre disposición	askatasunez banatzeko zatia	xedapen askeko zatia
47.	poder testatorio	poder testatorio	testamentua egiteko poderea	testamentu-ahalordea
48.	régimen de bienes del matrimonio	régimen de bienes del matrimonio	senar-emazteen ondasunen jaurpidea	ezkontideen ondasun-araubide
53.	saca foral	saca foral	saka-eskubidea	foru-saka

Ikusten denez, gaztelaniazko terminoei emandako euskarazko itzulpenak desberdinak dira, nahiz eta (35. kasuan izan ezik) gainerako guztietan zenbait hitzen erroa mantentzen den. Adibidez, 47. kasuan non *testamentu* erroa mantentzen den.

Maiztasun handia duen beste aldakortasun mota bat hau da: euskarazko bi elementu (4A):

zenbaki a	3/1992ko Legea (gaztelaniaz)	5/2015eko Legea (gaztelaniaz)	3/1992ko Legea (euskaraz)	5/2015eko Legea (euskaraz)
15.	consolidación de la comunicación foral	consolidación de la comunicación foral	foru-komunikazio finkatu	foru-komunikazio sendotu
24.	desheredación	desheredación	oinordetza galtze	jaraunsgabetze
28.	Fuentes del Derecho Foral	Fuentes del Derecho Civil Vasco	Foru-Zuzenbidearen iturburuak	Euskal Zuzenbide Zibilaren iturriak
50.	resolución	resolución	iraungiko da	suntsiarazi egingo da

63.	vecindad civil	vecindad civil	auzotartasun/herrita sun zibila	auzotasun zibila
-----	-------------------	-------------------	--	-------------------------

Ikusten denez legeek gaztelaniazko termino beraren euskarazko baliokidea emateko elementu desberdinak erabiltzen dituzte. Berdez agertzen den adibideari dagokionez, gaztelaniazko bertsioa aldatu denez, logikoki euskarazkoa ere aldatu da.

Aldakortasuna ere agertzen da atzizkietan (4E):

Zenbakia	3/1992ko Legea (gaztelaniaz)	5/2015eko Legea (gaztelaniaz)	3/1992ko Legea (euskaraz)	5/2015eko Legea (euskaraz)
2.	apartamento	apartamento	baztertu	baztertze
20.	derecho de representación	derecho de representación	ordezkotza- eskubidea	ordezkapen- eskubidea
22.	derecho preferente de adquisición	derecho de adquisición preferente	lehentasunez eskuratze eskubidea	lehenespenez eskuratze eskubidea
60.	troncalidad	troncalidad	tronkala/tronkaleko	tronkalitate

Aldakortasuna ikusten da atzizkietan. Adibidez, 22. kasuan, non lehenengo legean *-tasun* atzizkia erabiltzen den eta bigarreanean *-pen*. Adierazi bezala, berdez agertzen diren adibideetan gaztelaniazko bertsioa aldatu da eta ondorioz euskarazko bertsioa ere. Kasu honetan, gaztelaniazko aldaketak (erredakzio ordenaren aldaketak) ez du eraginik izan euskarazko bertsioan, eta atzizkien aldakortasuna da nabarmendu beharrekoa.

Aldakortasun morfosintaktikoaren barruan kasu hau da maiztasun handiena duena: [I+Adj.] vs [PP+I], (2F) hain zuzen:

Zenbakia	3/1992ko Legea (gaztelaniaz)	5/2015eko Legea (gaztelaniaz)	3/1992ko Legea (euskaraz)	5/2015eko Legea (euskaraz)
6.	bienes troncales	bienes troncales	tronkaleko ondasunak	ondasun tronkalak

40.	parentesco troncal	parentesco troncal	tronkaleko senidetasun	senidetasun tronkala
41.	parientes tronqueros	parientes tronqueros	tronkaleko senide	senidetasun tronkala

Beste aldaki morfosintaktiko bat agertu da; bakarra, izen elkartua vs [I+erl.Adj.] termino sintagmatikoa, (2D) hain zuzen. Baina, kasu honetan aldaki lexiko batekin (4C) agertzen da, 2D+4C:

33.	legado de usufructo universal	legado de usufructo universal	gozamen- eskubide orokorraren agintza	gozamen unibertsalaren gaineko legatua
-----	-------------------------------------	-------------------------------------	---	--

Lehenengo legean izen elkartua erabiltzen den bitartean, bigarreanean, termino sintagmatikoa izenez eta erlazio-adjektiboz osatuta dago. Gainera, bigarren legeak mailegutza jotzen du.

Berriz ere aldaki lexikoak agertzen dira, horien artean: 4I, 4F eta 4H.

Termino sintagmatikoen hedapenari (4I) dagokionez, adibide hau dugu:

Zenbakia	3/1992ko Legea (gaztelaniaz)	5/2015eko Legea (gaztelaniaz)	3/1992ko Legea (euskaraz)	5/2015eko Legea (euskaraz)
57.	testamento de hermandad	testamento de hermandad	testamentua ermandadean eginda	testamentu ermandadekoa

Termino sintagmatikoen oinarria identifikatu ondoren, aldakortasuna oinarrian edo hedapenean dagoen ikusi behar da. Batzuetan bereiztea ez da erraza. Termino sintagmatikoen oinarrian (4H) dagoen aldakortasun bakarra agertu da:

49.	régimen económico matrimonial	régimen económico de un matrimonio	ezkontzaren ondasunen jaurpidea	ezkontzaren araubide ekonomikoa
-----	-------------------------------------	--	---	---

Kasu honetan, gaztelaniazko erredakzio aldaketak ez du eraginik euskarazkoan. Nabarmentzekoa dena termino sintagmatikoaren oinarrien aldakotasuna da. Lehenengo legean *ondasunen jaurpidea* erabiltzen den bitartean, bigarreanean, *araubide ekonomikoa* erabiltzen da

Kasu bakarra ere agertu da aldakortasuna dagoena izen elkartuen oinarrian (4F):

7.	capitulaciones matrimoniales	capitulaciones matrimoniales	ezkontza- hitzarmen	ezkontza- itun
----	---------------------------------	---------------------------------	-------------------------------	-----------------------

Aldaki grafikoen artean, aldaki ortografikoa (1A) ere agertu da:

62.	usufructo poderoso	usufructo poderoso	podere osoko gozamena	botere osoko gozamena
-----	-----------------------	-----------------------	---------------------------------	---------------------------------

Laburketa kasua ere badugu euskal termino luzea vs erdal termino laburtua (3D):

9.	colación	colación	jarauntsira itzuli	kolazionatu
----	----------	----------	-------------------------------------	--------------------

Adierazi bezala, gehien agertzen den aldakortasun mota lexikoa da (4. multzoa). Eta multzo horren barruan maiztasun handienarekin eta portzentaje berean agertzen dira: mailegua vs euskal terminoa (4C) eta terminoaren aldakortasuna oinarrian eta hedapenean (4J). Atzetik ia portzentaje berarekin euskarazko bi elementu (4A) eta horren atzetik aldakortasuna atzizkietan (4E). Aipatutako aldaki morfosintaktiko (2. multzokoak) eta laburketa adibideaz (3. multzoa) gain, sailkapenaren bestelako aldaki motarik ez da agertzen.

Beraz, lehenengo taula honetan ikusten da lege berriak mailegutara jotzen duela eta gaztelerazko terminoei emandako euskarazko itzulpenak desberdinak direla, nahiz eta kasu gehienetan zenbait hitzen erroa mantentzen den. Gainera, argi ikusten da

aldakortasuna legeen euskarazko bertsioetan izan dela; gaztelaniazkoetan, ostera, aldaketa txikiak izan dira, garrantzi handirik ez dutenak.

3. 2. 2. Zuzenbide Zibileko terminoen azterketa

Esan bezala, Deustuk argitaratutako “Zuzenbide Zibileko Berbategian” agertzen diren eta Euskaltermeko datu basean Zuzenbide Zibileko termino gisa agertzen diren terminoak hartu ditut. Soilik horitan bietan agertzen diren terminoak sartu ditut taula honetan.

Taula honetan 203 termino daude guztira.

-Termino horietatik berdinak dira bai gazteleraz eta bai euskaraz bi legeetan: 81 termino, totalaren % 39,90a (ZURIZ agertzen diren guztiak).

-Termino horietatik desberdinak dira (kolore urdinez): 108 termino, totalaren % 53,20a.

-Termino horietatik desberdintasun partziala dute (laranjaz): 8 termino, totalaren % 3,94a.

-Legeen gaztelaniazko bertsioan aldaketa bat egon da eta ondorioz euskarazko bertsioa ere aldatu da (berdez): 6 termino, totalaren % 2,95a.

Kontuan hartzekoa da taularen totalaren % 57,14 terminok aldakortasunen bat duela. Eta aldakortasun portzentaje horren barruan % 49 aldaki lexiko bakarrari dagokiola, mailegua vs euskal terminoa (4C), hain zuzen. Guztira, 28 terminoetan ageri da aldakortasun mota hori (4C):

Zenbakia	3/1992ko Legea (gaztelaniaz)	5/2015eko Legea (gaztelaniaz)	3/1992ko Legea (euskaraz)	5/2015eko Legea (euskaraz)
33.	causante	causante	oinordetzaile	kausatzaille
39.	comisario	comisario	eskuordekoa	komisarioa
57.	delación	delación	deia	delazioa
75.	doctrina	doctrina	erizpide	doktrina
81.	edicto	edicto	iragarpen- agiri	ediktu
82.	emancipación	emancipación	burujabe	emantzipazio
86.	fianza	fianza	berme	fidantza
99.	hipoteca	hipoteca	bahitura	hipoteka
105.	inscripción	inscripción	agertuerazi	inskribatu

110.	jurisprudencia	jurisprudencia	epaigintza	jurisprudentzia
------	----------------	----------------	-------------------	------------------------

Ikusten denez, bigarren legeak mailegutzara jotzen du; aurreko legeak, aldiz, euskarazko terminoa erabiltzen du.

4C aldakortasun motaren atzetik maiztasun handiena dute portzentaje berean: euskarazko bi elementu (4A) eta termino sintagmatikoen aldakortasuna oinarrian eta hedapenean (4J). Multzo bakoitzaren barruan 21 termino aurkitu ditut. Hemen adibide batzuk (4A):

Zenbakia	3/1992ko Legea (gaztelaniza)	5/2015eko Legea (gaztelaniaz)	3/1992ko Legea (euskaraz)	5/2015eko Legea (euskaraz)
47.	consolidación	consolidación	finkatze	sendotu
61.	derecho de disfrute	derecho de disfrute	gozatzeko eskubidea	lupertzeko eskubidea
76.	domicilio	domicilio	bizilekuaren tokia	egoitza
83.	enajenar	enajenar	inorendu	bestereindu
85.	estipulación	estipulación	hitzartu	hizpatu
90.	garantía	garantía	erantzunbehar	berme
108.	interés	interés	erreditu	korritu
137.	perjuicios	perjuicios	eragozpen	kalte
162.	repudiación de la herencia	repudiación de la herencia	jarauntsia ez onartu	jarauntsia arbuia
199.	vecindad	vecindad	auzotartasun/herrit asun	auzotasun

Beraz, ikusten den moduan gaztelaniazko termino berarentzako euskarazko elementu desberdinak erabiltzen dira. Adibidez, 108. kasuan, non gaztelaniazko *interés* terminoaren ordainetan lehenengo legeak *erreditu* erabili duen eta bigarrenak, *korritu*.

Termino sintagmatikoen aldakortasuna oinarrian eta hedapenean (4J):

Zenbakia	3/1992ko Legea (gaztelaniaz)	5/2015eko Legea (gaztelaniaz)	3/1992ko Legea (euskaraz)	5/2015eko Legea (euskaraz)

1.	acceso a la propiedad	acceso a la propiedad	jabe izatera heldze	jabetza eskuratze
5.	acta notarial	acta notarial	Eskribau agiri-egile	notario-akta
17.	beneficio de inventario	beneficio de inventario	zorrak irabazien neurrian baino ez ordaintzekotan	inbentario-onura
21.	bienes hereditarios	bienes hereditarios/ caudal relicto	jarauntsi-ondasun	jarauntsiko ondasun/kausatzaileak utzitako ondasun
28.	cálculo de la cuota de la legítima	cálculo de la cuota de la legítima	seniparteari dagokion zatia atera	seniparte-kuota kalkulatu
43.	concurso de acreedores	concurso de acreedores	zor-hartzekodun	hartzekodunen konkurtso
56.	declaración de ausencia	declaración de ausencia	alde egindakotzat jo	absentzia-adierazpena eman
71.	día hábil	día hábil	asteguneko epearen barruan	egun baliodunetan
97.	hermanos de doble vínculo	hermanos de doble vínculo	guraso bietako nebarrebak	lotura bikoitzeko anai-arrebak
107.	intangibilidad de la legítima	intangibilidad de la legítima	senipartearen edo tronkaleko ondasunen ukitu-ezinari	senipartea ukitzeko ezintasuna

Aldaki lexiko hauei dagokienez, gaztelaniazko terminoei emandako euskarazko itzulpenak desberdinak dira, nahiz eta 1, 21, 28, 43 eta 107. kasuetan zenbait hitzen erroa mantentzen den. Adibidez azkeneko adibidean (107), *seniparte* erroa mantentzen da euskarazko bi ordainetan.

Esan bezala, desberdintasun partziala duten kasuak laranjaz margotu ditut. 21. kasuan ikusi daiteke nola gaztelaniazko bertsioa aldatzen den eta ondorioz baita euskarazkoa ere. Eta aldaketa horren eraginez euskarazkoan eskaintzen den bigarren ordaina ez dator bat aurreko legean emandakoarekin.

Aipatutakoen atzetik, lexikoan gehien errepikatzen diren aldakortasun kasuak dira (portzentaje berean): aldakortasuna atzizkietan (4E) eta termino sintagmatikoen hedapena (4I).

Atzizkien aldakortasunaren (4E) adibide hauek aurkitu ditut:

Zenbakia	3/1992ko Legea (gaztelaniaz)	5/2015eko Legea (gaztelaniaz)	3/1992ko Legea (euskaraz)	5/2015eko Legea (euskaraz)
63.	derecho de representación	derecho de representación	ordezkotza- eskubide	ordezkapen- eskubide
66.	derecho real de disfrute	derecho real de disfrute	gozamen- eskubide	gozatze- eskubide
100.	incapacitado	incapacitado	ezgai	ezgaitu
146.	preferencia	preferencia	lehentasun	lehenespen
182.	transmisión	transmisión	eskualdaketa	eskualdatze

Adierazi bezala, argi ikusten da euskarazko terminoek atzizkietan duten aldakortasuna. Adibidez, azken kasuan (182), non lehenengo legeak *-keta* erabiltzen duen eta bigarrenak, *-tze*. Eta termino sintagmatikoen hedapenari (4I) dagokionez:

Zenbakia	3/1992ko Legea (gaztelaniaz)	5/2015eko Legea (gaztelaniaz)	3/1992ko Legea (euskaraz)	5/2015eko Legea (euskaraz)
22.	bienes inmuebles	bienes inmuebles	ondasun mugiezin	ondasun higiezin

23.	bienes muebles	bienes muebles	ondasun mugikorrak	ondasun higigarriak
25.	bienes privados	bienes privados	bakarreko ondasun	ondasun pribatibo
26.	bienes troncales	bienes troncales	tronkaleko ondasun	ondasun tronkalak
67.	Derecho supletorio	Derecho supletorio	Zuzenbide osagarria	Ordezko zuzenbidea

Termino sintagmatikoen oinarria identifikatu ondoren, aldakortasuna oinarrian edo hedapenean dagoen ikusi behar da. Kasu hauetan termino sintagmatikoen hedapenean dago aldakortasuna. Izan ere, termino sintagmatikoen oinarrian (4H) aldakortasuna duen adibide bakarra topatu dut:

89.	fuentes de derecho	fuentes de derecho	zuzenbidearen iturburuak	zuzenbidearen iturriak
-----	--------------------	--------------------	--------------------------	------------------------

Maiztasunarekin jarraituz, eta terminoak ez diren arren (euskal ordainak esaldiak dira), interesgarria iruditzen zait aldakortasun mota hauek azpimarratzea:

Zenbakia	3/1992ko Legea (gaztelaniaz)	5/2015eko Legea (gaztelaniaz)	3/1992ko Legea (euskaraz)	5/2015eko Legea (gaztelaniaz)
27.	caducidad	caducidad	epe hori igaro ondoren	epeetatik edozein iraungitzen uzten badu
55.	declaración de fallecimiento	declaración de fallecimiento	epaileak hil dela adierazten duenetik	heriotza-adierazpena
176.	sucesión por cabezas	sucesión por cabezas	buruko hartuta	oinordeko izango dira buruko

			izango dira oinordeko	
177.	sucesión por estirpes	sucesión por estirpes	erroko hartuta izango dira oinordeko	oinordeko izango dira leinuko

Kasu honetan, esan bezala esaldien aurrean gaude, eta ez terminoen aurrean. Adibidez 55. adibidean, *epaileak hil dela adierazten duenetik* itzulinguru bat da *heriotza-adierazpena* adierazteko.

Hurrengoko aldakortasuna, laburpenetan (3. multzoan) agertzen da, hedapenaren ezabaketan (3B), hain zuzen:

Zenbakia	3/1992ko Legea (gaztelaniaz)	5/2015eko Legea (gaztelaniaz)	3/1992ko Legea (euskaraz)	5/2015eko Legea (euskaraz)
78.	donante	donante	emaileak	dohaintza- emaileak
79.	donatario	donatario	hartaileak	dohaintza- hartaileak

Argi ikusten da nola lehenengo legean *emaileak* eta *hartaileak* nahikotzat hartzen diren, aldiz, bigarren legean ez dute hedapena ezabatzen eta *dohaintza-emaileak* eta *dohaintza-hartaileak* erabiltzea erabaki da.

Aldaki grafikoaren artean, aldaki ortografikoak (1A) ere agertu dira:

Zenbakia	3/1992ko Legea (gaztelaniaz)	5/2015eko Legea (gaztelaniaz)	3/1992ko Legea (euskaraz)	5/2015eko Legea (euskaraz)
88.	frutos	frutos	frutuak	fruituak
203.	vitalicio	vitalicio	biziarteko	bizi arteko

Ikusten denez, termino berak era desberdinean idazten dira.

Aipatutakoez gain eta aldaki lexikoetara bueltatuz, aldakortasuna izen elkartuen oinarrian duen (4F) adibide hau dugu:

Zenbakia	3/1992ko Legea (gaztelaniaz)	5/2015eko Legea (gaztelaniaz)	3/1992ko Legea (euskaraz)	5/2015eko Legea (euskaraz)
156.	régimen de separación de bienes	régimen de separación de bienes	ondasunen banatze- jaurpidea	ondasunen banantze- arabidea

Ikusten denez, izen elkartu hauen oinarria aldatzen da: *-jaurpidea* eta *-arabidea*. Adibide hau bezala, aurreko sailkapenetan sartzen ez diren gainerako kasuak bereziak dira, soilik adibide bakarrean agertu izan direnak (lehenengo eranskinetako bigarren taulan ikusi daitezkeenak), horietako bi dira, 2B+4C eta 4J+3B:

Izen elkartua vs [Izlg+I] termino sintagmatikoa (2B) + mailegu vs euskal terminoa (4C):

164.	reservatario	reservatario	gordetakoaren hartzailea	erreserba- hartzailea
------	--------------	--------------	-------------------------------------	----------------------------------

Aldakortasuna oinarrian eta hedapenean (4J) + hedapenaren ezabaketa (3B):

171.	sociedad conyugal	sociedad conyugal	ezkontzaren orduko jaurpidea	sozietatea
------	----------------------	----------------------	---	-------------------

Azken bi adibide hauetan, ikusten da aldakortasun lexikoa dela maiztasun handiena duena. Bietako lehenengo kasuan (164), lehenengo legean izenlaguna + izena (*gordetakoaren hartzaile*) erabiltzen da, eta bigarren legean, *erreserba-hartzaile*, izen elkartua eta mailegua ere dena. Azken adibidean (171.), legeek emandako ordainak desberdinak dira guztiz, ez da ezta hitz baten erroa mantentzen; izan ere, bigarren legean emandako ordainean, *sozietatea*, hedapenaren ezabaketa ikusten da.

Beraz, taula honetan maiztasun handienarekin agertzen diren aldakiak 4. multzoari dagozkionak dira, eta horietatik gehien agertzen dena, mailegua vs euskal terminoa (4C)

da (28 termino). Horren atzetik portzentaje berean jarraitzen diote, euskarazko bi elementu (4A) eta termino sintagmatikoaren aldakortasuna oinarrian eta hedapenean (4J), (aldakortasun mota bakoitzean 21 termino agertu dira). Aipatutakoen atzetik bi hauek datoz: aldakortasuna atzizkietan (4E) eta termino sintagmatikoen hedapena (4I); hauek ere portzentaje berean (7 termino aldakortasun mota bakoitzean). Horrez gain, esan bezala, nahiz eta terminologia azterketa den egiten ari naizena, uste dut garrantzitsua dela aipatzea kasu batzuetan euskarazko ordaina terminoa izan beharrean esaldia izan dela.

Gainera aurreko taulan (Euskal Zuzenbide Zibileko terminoen taulan) bezala, aldakortasun kasuak legeen euskarazko bertsioetan agertu dira; azpimarratzekoa da gaztelaniazko bertsioetan izan diren aldaketak oso txikiak direla batez ere erredakzioan, eta ez terminologian.

3. 2. 3. Zuzenbide Orokorreko eta Zuzenbide adar desberdinetako terminoen azterketa

Adierazi bezala, zuzenbide adarraren arabera sailkatu ditut terminoak, eta emaitza hiru taula izan dira. Hirugarren taulari dagokionez, hau da, Zuzenbide orokor eta Zuzenbideko bestelako adarretako terminoen taulatik ondorengo datuak atera ditut:

-Guztira: 120 termino.

-Termino horietatik berdinak dira bai gazteleraz eta bai euskaraz bi legeetan: 59 termino, totalaren % 49,16 (ZURIZ agertzen diren guztiak).

-Termino horietatik desberdinak dira (kolore urdinez): 58 termino, totalaren % 48,33.

-Termino horietatik desberdintasun partziala dute (laranjaz): 3 termino, totalaren % 2,5.

Beraz, terminoen totalaren %50,83ko aldakortasuna dago. Ikusten denez hirugarren taulako lehenengo azterketa honetan agerikoa da terminologia batasunaren falta.

4. ONDORIOAK

Aipatutako legeen terminologia azterketan, terminologia juridikoaren batasun eza egiaztatu dut, Euskal Zuzenbide Zibileko eta Zuzenbide Zibileko terminologian, hain zuzen.

Elosegik 2004an terminologia juridikoaren inguruan ateratako ondorioak betetzen direla egiaztatu dut. Izan ere, berak esaten zuen (berak egindako lanean oinarrituz) ez dagoela

finkatuta hasieratik bukaerara zein den gaztelaniazko termino bati dagokion euskarazko baliokidea, eta hainbat kasutan, gaztelaniazko termino baten ordainetan euskarazko terminoa eman beharrean, esaldiak ematen zirela. Horrela gertatu da bigarren taulan (Zuzenbide Zibileko terminoen taulan), nahiz eta esaldiak agertzen diren portzentajea txikia den, totalaren % 2,46a, hain zuzen.

Horrez gain, Elosegik zioen, orobat, batzuetan, mailegutzara ez jotzeko, terminoen esanahia interpretatzeko ahaleginak egiten direla, eta, horretarako, hitz elkartuak, eratorriak, sintagmak erabiltzen direla. Baina, irizpideak aldatzen dira; berak egindako azterketan, 1990etik aurrera maileguzkoetara jotzen delako berriro ere (gogoratu behar dugu, 90eko hamarkadan, muturreko ereduaren desagertzea gertatu zela). Izan ere, garai batean oso irizpide garbizaleekin jokatzeko zen eta nekez onartzen ziren maileguak; gaur egun, berriz, jatorriaren aurreiritziak ez du hainbesteko pisurik eta baldintza batzuk betetzen badira, errazago onartzen ditugu maileguak. Eta nire azterketan antzeko joera egiaztatu dut. Izan ere, lehenengo bi taulen emaitzetan, mailegutzarekin lotutako aldakortasuna da portzentaje handienarekin agertzen dena (lehenengo taulan, aldaki guztien % 13,57; bigarren taulan, aldaki guztien % 49).

Azpimarratzekoa da, halaber, euskarazko ordain bakarra edo gehienez bi egon direla gaztelaniazko termino bakoitzaren ordain gisa. Izan ere, bi tauletan ere, mailegutzaren atzetik maiztasun handienarekin agertzen den aldakortasun mota hau da: euskarazko bi elementu (4A) desberdin izatea. Eta aldakortasun mota horrekin batera (lehenengo taulan, aldaki guztien % 13,57; bigarren taulan, aldiz, 4A aldakiaren portzentaje berean, hau da, aldaki guztien % 36,75) beste aldakortasun mota hau dugu: termino sintagmatikoen aldakortasuna oinarrian eta hedapenean (4J). Bi tauletan, gaztelaniazko terminoei emandako euskarazko itzulpenak guztiz desberdinak dira, nahiz eta kasu batzuetan zenbait hitzen erroa mantentzen den.

Esan bezala, gaztelaniazko bertsioak ere aztertu ditut, terminologia aldaketarik izan den ikusteko. Aldaketa horiek oso txikiak izan dira; izan ere, zenbait artikuluren erredakzioa aldatu bada ere, terminologia ez da aldatu funtsean; adibidez, bigarren taulan, non aldaketa horiek totalaren % 2,95 besterik ez baitute osatzen.

Beraz, aztertutako Zuzenbideko bi adar hauen terminologiak antzeko aldakortasun kasuak izan dituela esan dezakegu. Azken hamarkadetan zuzenbide zibileko hizkera gehiago jorratu bada ere, lege hauen azterketatik ateratako ondorioek erakusten dute batasun falta

nabaria dela. Dena dela, batasun falta hori diakronikoa da (hau da, bi garai alderatuz ondoriozta daitekeena), eta, besterik gabe, esan nahi du aldaketa handiak izan direla zuzenbide zibilaren arloko terminologian azken hamarkadetan; baina horrek ez du esan nahi gaur egun hainbesteko aldakortasuna dagoenik: seguru asko, asko hurbildu dira garai bateko joera terminologiko kontrajarriak. Edozein modutan, bestelako azterketa bat egin behar litzateke gaurko terminologia juridikoaren batasuna edo batasun falta egiaztatu ahal izateko. Beharbada, hamar urte barru antzeko azterketa bat egingo balitz, batasun gehiago agertuko litzateke. Izan ere, hizkera baten garapena bere erabilerarekin lortzen da eta Euskalterm bezalako baliabideei esker batasun terminologikoa lortzeko bidea apur bat gertuago dago.

5. BIBLIOGRAFIA

Aipamen bibliografikoak

- IMAZ, L., (2007): “Bigarren Zatia Euskal Zuzenbide Zibil Autonomikoa, 5. Ikasgaia: Espainiako ordenamendu zibilak”, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU): 1-2 orr.
- LOBERA, A. eta URRUTIA, A., (zuz.)/(1997): “Euskara, zuzenbidearen hizkera”. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2. Argitalpena.
- URRUTIA, E., URRUTIA, A., GALLASTEGI, C., ETXEBARRIA, A., (2005): “Oinarrizko Hiztegi Juridikoa”. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, Minor Bilduma, 4. zk.
- URRUTIA, E., URRUTIA, A., GALLASTEGI, C., ETXEBARRIA, A., (2010): “Zuzenbide Zibileko Berbategia”. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, Minor Bilduma, 7. zk.
- URRUTIA, A., (2014): “Diccionario Terminológico de Derecho civil foral vasco”. Zuzenbidearen Euskal Akademia (ADV/ZEA).

Internetik ateratako lanak eta artikuluak

- ARRIETA MARIÑO, J., (2009): “Eusko Legebiltzarraren Hizkuntza Baliabideak”. *Garalex*.

http://www.ehu.es/ehusfera/garalex/files/2009/09/Eusko-Legebiltzarraren-Hizkuntza-Baliabideak_June-Arrieta-Mari%C3%B1o.pdf

- DELA TORRE, X., (2011): “IVAPen ekimenak”. *Garalex*.

http://www.ehu.es/ehusfera/garalex/files/2011/02/IVAPen-ekimenak_Xabier-de-la-Torre.pdf

- ELOSEGI, A., (2004): “Euskara juridikoak 25 urte betetzen dituenean. Gogoeta batzuk euskara juridikoaren gainean”. *Eleria: Euskal Herriko legelarien aldizkaria*. Donostia: Eusko Ikaskuntza. 12 bol., 71-85 orr.

<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/Eleria/12/12071085.pdf>

- ETXABE, A.,(2011): “UZEI eta Justizia Sailaren ekarpena”. *Garalex*.

<http://www.ehu.es/ehusfera/garalex/files/2011/02/UZEIren-eta-Justizia-Sailaren-ekarpena-Ane-Etxabe.pdf>

-IMAZ LEUNA, M., (2012): Hitzen artean: “Terminologia euskal itzulpengintzan”. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU): 189-196.orr.

www.ueu.es/download/liburua/HitzenArtean.web.pdf

-LOZANO, J., (1997) “Zenbait argibide euskara juridikoaren gainean”. *Eleria: Euskal Herriko Legelarien aldizkaria*. Donostia: Eusko Ikaskuntza. 1. Bol, 55-75 orr.

<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/Eleria/01/01055075.pdf>

-MAESO, A., (2011): “Forulege”. *Garalex*.

http://www.ehu.es/ehusfera/garalex/files/2011/02/Forulege_Aitor-Maeso.pdf

Jardunaldi desberdinetako lanak

-ALKORTA, I., (2004): “Zuzenbidearen irakaskuntza eta euskara, itzulpenaren ikuspegitik: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)” *Jardunaldia: Hizkera juridikoa eta itzulpengintza: euskararen norabideak*: 211 orr.

-ARREGI, X., ARRULATE, A., ARTOLA, X., LERSUNDI, M., SANTANDER, G., eta UMBELINA G., (2010): “TZOS: Terminologia Zerbitzurako On-line Sistema”. *Ugarteburu Terminologia Jardunaldiak IV: “Euskararen garapena esparru akademikoetan”, Espezialitate hizkerak eta terminologia*. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

<https://www.ehu.es/documents/2430735/2730484/LIBURUAehuei10-11.pdf>

-DÍAZ DE LEZANA, A., (2003): “Terminologia eta normalizazioa Euskal Autonomia Erkidegoan”. *Espezialitate-hizkerak eta Terminologia: Jardunaldiak 2003*. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

<https://www.ehu.es/documents/2430735/2877801/diaza.pdf>

-DÍAZ DE LEZANA, A., (2010): “Euskarazko terminologiaren normalizazioa: Terminologia batzordea”. *Ugarteburu terminologia Jardunaldiak IV: “Euskararen garapena esparru akademikoetan”, Espezialitate hizkerak eta terminologia*. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

<https://www.ehu.es/documents/2430735/2730484/LIBURUAehuei10-04.pdf>

-SAN MARTIN, I., (2013): “Terminologia Sareak Ehunduz: Unibertsitateko ikasgeletan erabiltzen den terminologia erreala ikusgai egitea helburu duen programa”. *Ugarteburu Terminologia Jardunaldiak V: Terminologia naturala eta terminologia planifikatua euskararen normalizazioari begira*. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

<https://www.ehu.es/documents/2430735/2730483/LIBURUAehuei13-03.pdf>

-URRUTIA, E., (2004): “Zuzenbidearen irakaskuntza eta euskara, Itzulpenaren ikuspegitik: Deustuko Unibertsitatea” *Jardunaldia: Hizkera juridikoa eta itzulpengintza: euskararen norabideak*:182-188 orr.

-UZEI, (2010): “Euskara juridikoa eta abokatuen hizkuntza-baliabideak”. *Ugarteburu Terminologia Jardunaldiak IV: “Euskararen garapena esparru akademikoetan”, Espezialitate hizkerak eta terminologia*. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

<https://www.ehu.es/documents/2430735/2730484/LIBURUAehuei10-08.pdf>

Webguneak

-Egungo Euskararen Hiztegia (EEH)

<http://www.ehu.es/eeh/>

-Euskalterm

<http://www.euskara.euskadi.eus/r59-euskalte/eu/q91EusTermWar/kontsultaJSP/q91aAction.do>

-Euskaltzaindiaren Hiztegia

http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegianbilatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu

-Euskara juridikoaren Ataria (UPV/EHUko Zuzenbide Fakultatea)

<https://www.euskara-juridikoa.eus/>

-Epaitegietako lexikoa

<http://www.justizia.net/euskara-justizian>

-Forulege (Euskal zuzenbide zibileko legeen baliokidetasun-taula)

http://www.forulege.com/dokumentuak/Tabla_equivalencias%203-1992%20-%205-2015.pdf

-Garalex bolga

<https://www.ehu.eus/ehusfera/garalex/>

-Hiztegi Juridiko Elebiduna (IUSPLAZA)

<http://www.iusplaza.com/hiztegia/hiztegi-elebiduna>

-IUSPLAZA (Zuzenbidearen webgunea euskaraz, AVD/ZEA)

<http://www.iusplaza.com/>

-(Justiza.net) Itzulpen juridikoak

<http://www.justizia.net/euskara-justizian>

-(Justizia.net) Itzulpen juridikoen kontsulta

<http://www.justizia.net/euskara-justizian/testuak?cons=1>

-(Justizia.net) Lege-testu elebidunak

<http://www.justizia.net/liburutegia/lege-testu-elebidunak>

-Terminologia Hiztegia UZEI (2002-09-30)

http://www.zuzenean.euskadi.eus/s68-contay/eu/contenidos/informacion/6503/eu_2415/adjuntos/terminologi_hiztegia.pdf

-Zuzenbide Corpora (UPV/EHU)

<http://www.ehu.eus/ehg/zuzenbidea/>

Hiztegi terminologikoen webguneak

-Hiztegiak eta Terminologia

http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/contenidos/informacion/terminologia/eu_3819/beste_hiztegiak.html

-Hiztegi espezializatuak

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/terminologia_euskararen_corpus/es_def/index.shtml

Hirugarren ataleko azterketarako erabilitako legeak

-3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru-zuzenbide Zibilari buruzkoa.

-5/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskal Zuzenbide Zibilari Buruzkoa.

1. ERANSKINA

Aldakien sailkapena:

1. ALDAKI GRAFIKOAK:

- a) Aldaki ortografikoak (*ingeniaritza / injinerutza*)
- b) Siglen osagaien hurrenkera (*ADN / DNA*)
- c) Forma hedatua vs laburtzapena (*Harturiko immunoeskariaren sindromea / HIES*)
- d) Maiuskula vs minuskula (*Giza Genoma Proiektua / Giza genoma proiektua*)
- e) Izen elkartuetan marra bai vs ez (*kotizazio-aldia / kotizazioaldia*)

2. ALDAKI MORFOSINTAKTIKOAK:

- a) Mendekotasunezko vs atribuziozko izen elkartua (*gako-hitz / hitz-gako*)
- b) Izen elkartua vs [izlg+I] termino sintagmatikoa (*enpresaburu-elkarte / enpresaburuen elkarte*)
- c) Aposizioa vs [izlg+I] termino sintagmatikoa (*Golgi aparatua / Golgi-ren aparatua*)
- d) Izen elkartua vs [I.+erl.Adj.] termino sintagmatikoa (*sindikatu-kuota / kuota sindikala*)
- e) Izen elkartua vs eratorria (*landare-hobekuntza / fitohobekuntza*)
- f) [I+Adj.] vs [PP+I] (*gaixotasun hereditario / herentziazko gaixotasun*)

3. LABURKETAK:

- a) Oinarriaren ezabaketa (*izaki bizidun / bizidun*)
- b) Hedapenaren ezabaketa (*lan arloko eskubideak / lan-eskubideak*)
- c) Kategorialdaketa (*substantzia lasaigarri (I+Adj.) / lasaigarri (I)*)
- d) Euskal termino luzea vs erdal termino laburtua (*sindikatu kide egitea / sindikatzea*)

4. ALDAKI LEXIKOA:

- a) Euskarazko bi elementu (*alokairu / soldata*)
- b) Euskal termino bakuna vs konplexua (*atseden / atsedendia*)
- c) Mailegua vs euskal termino konplexua (*komisio / batzorde*)
- d) Kultur errodun terminoa vs euskal neologismoa (*zigoto / obulu ernaldu*)
- e) Aldakotasuna atzizki eta aurrizkietan (*iraungitzea / iraungipena*)
- f) Aldakortasuna izen elkartuen oinarrian (*bidaiari-sariak / bidaiari-gastuak*)
- g) Aldakortasuna izen elkartuen modifikatzailean (*jubilazio-adina / erretiro-adina*)
- h) Termino sintagmatikoen oinarria (*ezinbesteko kasua / ezinbesteko egoera*)
- i) Termino sintagmatikoen hedapena (*derrigorrezko eszedentzia / nahitaezko eszedentzia*)
- j) Aldakortasuna oinarrian eta hedapenean (*lan-eskua trafikatzeko / langile-trafikoa*)

Euskal Zuzenbide Zibileko terminoak: aldakortasuna (1992/2015)

Aipatutako bi legeetako terminoen konparaketan, “Diccionario Terminológico de Derecho civil foral vasco” hiztegi terminologikoan agertzen diren terminoak soilik sartu ditut taula honetan.

-Guztira: 64 termino.

-Termino horietatik berdinak dira bai gazteleraz eta bai euskaraz bi legeetan: 22 termino, totalaren % 34,37a (ZURIZ agertzen diren guztiak).

-Termino horietatik desberdinak dira (kolore urdinez): 29 termino, totalaren % 45,31.

-Termino horietatik desberdintasun partziala dute (laranjaz): 4 termino, totalaren % 6,25a.

-Legeen gaztelaniazko bertsioan aldaketa bat egon da eta ondorioz euskarazko bertsioa ere aldatu da (berdez): 8 termino, totalaren % 12,5a.

Zenba kia eta letra	3/1992ko Legea (gaztelania)	5/2015eko Legea (gaztelania)	3/1992ko Legea (euskara)	5/2015eko Legea (euskara)	Aldaki ak
A					
1.	alimentos	alimentos	mantenua	mantenua	
2.	apartamien to	apartamien to	baztertu	baztertze	4E
B					
3.	bienes ganados	bienes ganados	irabazitako ondasun	irabazitako ondasun	
4.	bienes procedentes de cada uno de los cónyuges	bienes procedentes de uno de los cónyuges	ezkontide bakoitzak ekarritako ondasunak	ezkontide batengan jatorria duten ondasunak	
5.	bienes raíces	bienes raíces	onibar	onibar	
6.	bienes troncales	bienes troncales	tronkaleko ondasunak	ondasun tronkalak	2F

C					
7.	capitulaciones matrimoniales	capitulaciones matrimoniales	ezkontza-hitzarmen	ezkontza-itun	4F
8.	caserío	caserío	baserri	baserri	
9.	colación	colación	jarauntsira itzuli	kolazionatu	3D
10.	colateral	colateral	alboko	alboko	
11.	comisario	comisario	eskuordeko	komisario	4C
12.	comunicación foral	comunicación foral	foru-komunikazioa	foru-komunikazioa	
13.	conflicto de leyes	conflicto de leyes	lege-gatazka	lege-gatazka	
14.	conmutar el usufructo	conmutar el usufructo	gozamena (...) baten truke alda dezake	kommutatu (...) gozamena	4C
15.	consolidación de la comunicación foral	consolidación de la comunicación foral	foru-komunikazioa finkatu	foru-komunikazioa sendotu	4A
16.	contador-partidor	contador-partidor	kontulari-banatzailea	kontulari-banatzailea	
17.	cónyuge viudo	cónyuge viudo	alarguna	alarguna	
18.	costumbre	costumbre	ohitura	ohitura	
D					
19.	derecho de habitación	derecho de habitación	etxearen zatian bizitzen jarraitzeko eskubidea	biztantzeko eskubidea	4J
20.	derecho de representación	derecho de representación	ordezkotza-eskubidea	ordezkapen-eskubidea	4E

21.	Derecho Foral vasco	Derecho civil vasco	Euskal Herriko Foru-Zuzenbide	Euskal Zuzenbide Zibila	
22.	derecho preferente de adquisició n	derecho de adquisició n preferente	lehentasunez eskuratzeko eskubidea	lehenespenez eskuratzeko eskubidea	4E
23.	descendient e	descendient e	ondorengo	ondorengo	
24.	desheredaci ón	desheredaci ón	oinordetza galtze	jaraungabetz e	4A
